



GABONAK 2020

Juan San Martin liburutegia
Irakurketa gida
Guía de lectura
Biblioteca Juan San Martin





Joan den eguneko ipuina / Roberto Aliaga

Kalandraka, 2020

«Joan den eguneko ipuina» seme-alabei zaien maitasun mugagabeaz mintzo da. Gauaz, lo hartu aurretik, gelaren iluntasunean izandako elkarritzketa samur baten bidez, irakurleari erakusten dio zeinen handia den haurrek helduengan eragiteko duten gaitasuna. Bi protagonisten arteko hitzek agerian uzten dute nola berreskuratu ditzakeen heldu batek, jadanik urrun duen haurtzarora itzuliko bailitzan, dagoeneko galduak zituen emozio eta fantasiak. Familia asko identifikaturik sentituko dira gaugiroko irudi honekin, etxeko txikienak loak noiz hartuko esperoan ematen diren une horiek gogora ekarrita.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

Arrautzan / Emma Lidia Squillari

Kalandraka, 2020

«Joan den eguneko ipuina» seme-alabei zaien maitasun mugagabeaz mintzo da. Gauaz, lo hartu aurretik, gelaren iluntasunean izandako elkarritzketa samur baten bidez, irakurleari erakusten dio zeinen handia den haurrek helduengan eragiteko duten gaitasuna. Bi protagonisten arteko hitzek agerian uzten dute nola berreskuratu ditzakeen heldu batek, jadanik urrun duen haurtzarora itzuliko bailitzan, dagoeneko galduak zituen emozio eta fantasiak. Familia asko identifikaturik sentituko dira gaugiroko irudi honekin, etxeko txikienak loak noiz hartuko esperoan ematen diren une horiek gogora ekarrita.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

Ene Itsugidari, Ene kapitain

Kalandraka, 2020

Emozioa eta edertasuna, aita baten eta haren alabaren arteko maitasun sakona, eta ikusteko mugetatik harago ikusteko gaitasuna, horiek guztiak agertzen dira liburu honetan. Izan ere, iluntasunean bizitzeak edo ikus-eremu murritzua izateak ez dute zertan


Erabilgarritasuna / Disponibilidad

Hugo eta gaeuko herensugea

Mezulari, 2020

Hugo ezustekoz betetako eraikin-labirinto batean bizi da. Gau batean lo geratzen da ate misteriotsu baten alboan, Eta esnatzen denean... Adiskidetasunari buruzko istorio samurra.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad






Katta ametsetan /Miren Agur Meabe Elkar, 2020

Udaberriarekin batera, basoa kolore berri zantzi da. Neguko lozorrotik irtenda, Katta, inguruak miatzeko gogoz, zuhaitzera igo eta ia iritsi da zeruraino. Amets batean bezala hegaldatuko da lainoetan eta, etxera itzultzean, udaberriak garai berri baten zantzuak ekarri dizkiola konturatuko da. Gaiak: fantasia, udaberria, bizitza berria.


Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Badator supermitxina! / Guido Sgardoli Giltza, 2020

Akiles, Lucaren katutxoan galdu egin da, non ote dago? Tipulak zerbait entzun du, norbait miauka. Sinestuko zenuke kateme potolo beldurti eta loti bat superkatu bihir daitekeenik? Supermitxinaren ordua iritsi da! Ez galdu nire abenturak! Irakurle hasiberria bazara, egoki-egokiak dira, letra mota hau erraz irakurtzen baita.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Batetik zetara gure ostadarra / Antton Kazabon Denonartean , 2020

Material honekin kantuan eta boz goran jolasterakoan, zenbakiak, letrak eta koloreak landu ditzakegu. Oharkabean, bertsotako hainbat doinu, errima, neurri, hitz joko eta errepikapen ere aurkituko ditugu.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Claude eta Morino: Madarikazioa / Adrien Albert Astiberri, 2020

Nola ezagutu duten elkar? Oso modu errazean. Gau erdian, Morinok, ohi bezala, karabanako trampola zabaldu, eta txiza egin du. Baina, oraingo honetan, azpian lurperaturik zegoen eskeleto txiki baten gainera erori da infusioaren txiza, eta eskeletoa esnatu egin da. Claude du izena, kolore berde ederreko da, eta lurgaineko bizitzaren xehetasun guztiak jakin nahi ditu, ahaztuak baititu. Morinoren laguna izan nahi du, baina Morinori gogaikarri samarra egingo zaio. Alabaina, zenbat eta gehiago saiatu baztertzen, orduan eta ezinbestekoagoa izango zaio Claude.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad






Gau beltza / Josu Ozaita

Txalaparta, 2020

Anari amorratua dago, etxearen ez baita giro: Halloween ospatu nahiko luke, baina amak ezetz dio, jai arrotza dela eta ez duela balio onik sustatzen. Bere inguruan giroa txartzen denean, Anarik itsasoa du ihesbide; bertan lortzen du bakea, surfa lagun. Azkenaldian maiz itsasoratzen da. Ez du etsiko, ordea, eta eskolako lan baten ondorioz, aitonak kontatuko dio umetan haien ere ospatzen zutela antzeko eguna bat, eta kalabazak lapurtzen, apaintzen eta herriko hainbat txokotan uzten zituztela. Auzoak beldurtzeko bihurrikeria bat zen. Anarik irrikaz lotuko ditu hariak, eta lagunekin batera gaurkotuko dute arbasoen ohitura bat: Gau beltza.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




BAT : Ziberbullying-aren aurka

Elkar, 2020

Udako oporraldi luzearen ostean gertatuko da: BAT taldeko kideek deskubrituko dute haien eskolak ez daukala dirurik eta ez dutela ikasturte berrirako irekiko. Hasieran, poztu egingo dira, baina zorionak ez die askorik iraungo, konturatu baitira eskola ezberdinetara joango direla handik aurrera. Hasieran, telefonoei esker eutsiko diote elkarren arteko harremanari. Gero, ordea, mezu beldugarriak iritsiko dira

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Calle de los suspiros 109, fantasmas a domicilio / Mr. Tan

Jaguar, 2020

Elliot y sus padres se mudan al número 109 de la Calle de los Suspiros. No saben que esta casa ya tiene unos habitantes y son un tanto peculiares... Bueno, sobre todo Elliot, porque sus padres trabajan mucho y nunca están por allí. Pronto llegará una baby-sitter que no parece como las demás. Busca algo... ¿fantasmas, quizás? ¡Descubre con Elliot cómo pueden ser los fantasmas realmente! ¡igual da más miedo una persona viva!

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Valerium Tremens eta traganarruak / Etxeberria

Elkar, 2020

Hondartzan hilotz bat azaldu denetik, herriko marinel zaharrek itsasoko izaki ahaztuei buruzko kondairak baino ez dituzte guztiak ahoan. Eskolan ordea, Valerium Tremens amerikar etorri berria da denen hizketagai. Sara, Martin eta hirurek altxorren bila jolasean Azken Portuan barneratzen direnean, arriskuan ikusiko dute euren burua. Traganarruei ihesi, ustekabeko sekretuak topatuko dituzte.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)





Onin eta Afrikarako bidaia / Ibon Martín

Travel bug, 2020

Etorriko zinateke hegan Afrikara kultura berriak ezagutzen? Kaixo! Onin naiz. Etorriko zinateke hegan Afrikara kultura berriak ezagutzen? Cousteau arrano arrantzaleari lagundu behar diogu bere neguko migrazioan. Hegaldi honek, Urdaibaiko paduretatik abiatuta, leku zoragarrietara eramango gaitu: Marrakex hirira, basamortuko oasi batera, ur arrosa duen aintzira batera... Bidean, tximino lapur batekin lehiatu beharko dugu, eta krokodilo goseti batzuei aurre egin. Sinestezina, ezta? Onik aterako ote gara halako abenturatik?

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




El secreto de la mansión / Lauren Magaziner

RBA, 2019

Alguien quiere hacerse con el tesoro escondido de una excentrica millonaria. Pero la búsqueda del culpable se ve complicada por todo tipo de acertijos, enigmas, oscuros secretos y un montón de decisiones imposibles. Por si fuese poco, Carlos es el encargado de investigar lo ocurrido y no ha resuelto un misterio en su vida, así que va a necesitar tu ayuda para resolver su primer caso. ¿Podrás ayudarle a él y a sus amigos a descubrir al culpable, encontrar el tesoro y salvar la agencia de detectives de su madre? TÚ DECIDES A QUÉ SOSPECHOSOS INTERROGAR, QUÉ PREGUNTAS HACER Y QUÉ PISTAS SEGUIR.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




Eta hau da nire egunkaria / Jeff Kinney

Alberdania, 2019

Rowley Jefferson Greg Heffleyren lagun mina da, eta hau bere liburua da. Orain badu, Greg lagunak bezala, egunkari propioa. Liburu honek, Rowleyri buruz bada ere, sekulako zerikusia du Gregekin, bere lagunik onena delako. "Mutiko superjator baten egunkaria" jarri diote izenburu, hori esaten baitu Rowleyren aitak bere semeari buruz: "Zu bai mutiko superjatorra, seme!". Batzuetan, gurasoek esaten dizkioten gauzak entzunda, Rowleyri iruditzen zaio ez dutela berak Gregi buruz duen iritzi bera. Ez dute Greg gustuko...

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Superman de Smallville / Art Baltazar & Franco

Hidra, 2020

Libro de historietas encuadrado en rústica de 144 páginas interiores en color más cubiertas que contiene el cómic original Superman of Smallville publicado en USA por DC Comics. Clark Kent es un chico de trece años con un supersecreto: ¡es Superman! Un día, un montón de cosas empiezan a desaparecer... Ancho: 150 cm

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)






Ikusezin / Eloy Moreno

Denonartean, 2020

Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izan nahi lukeela? Nork ez du noizbait pentsatu ikusezin izateari utzi nahi liokeela?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Portuak / Oihana Arana

Gaumin, 2020

Noiz uzten diogu haur izateari? Noiz egiten gara heldu? Nerabetasunaren galdera ikur handiei erantzun txikiak ematera dator llargiren nerabezaroaren argazki panoramikoa den "Portuak" eleberria. Garai lurrikaratsu horretan, gorputzarekin, lagunekin, etxeekoekin, heriotzarekin... izandako harremana kontatzen du etorkizuneko llargik, aitona Matiasek herentzian utzitako portuekiko obsesioa ardatz. Istorioan zehar, protagonista bereziki arduratuko da ingurukoen (familia, lagunen...) zaintzaz, eta horretan dabilela, hautsi beharreko hainbat estereotiporekin egingo du topo. Nerabe izatetik heldu izaterako muga igarotzen lagunduko dion pausoa izango da horiei aurre egitea. Pixkanaka pasatuko da llargi itsaso zabalean noraezean ibiltzetik, portuan amarratuta egotera. Agian ideia hobea zen itsaso zabalean noraezean jarraitzea. Batek daki!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Coraje / Raina Telgemeier

Maeva, 2020

Ganadora del Premio Will Eisner a la mejor publicación infantil. Telgemeier consigue combatir sus miedos –esos que se representan como dolores de estómago– con coraje. Tanto que permanece durante semanas como número 1 de las listas de los más vendidos. Raina, la reina de la novela gráfica para adolescentes.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



La promesa de Julia / Blue Jeans

Planeta, 2020

Amor, amistad y misterio se unen en el esperado cierre de la Trilogía LA CHICA INVISIBLE. ¡Más Blue Jeans que nunca! Tras el éxito de La chica invisible y El puzzle de cristal llega el desenlace de la Trilogía LA CHICA INVISIBLE.


Erabilgarritasuna / Disponibilidad







[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Zorionak eta urte berri on!

Biblioteca Juan San Martin Liburutegia
Bista Eder, 10
20600 Eibar (Gipuzkoa)
tel: 943 708 437
email: liburutegia@eibar.eus

